

VALENTZIAKO DEKLARAZIOA
FAMILIA ETA KOMUNITATEKO MEDIKUNTZARI ETA UNIBERTSITATEARI
BURUZKOA

Valentzia, 2008ko Urriak 25

HITZAURREA

Familia eta Komunitate Medikuntzako edukiak eta metodoak Unibertsitatera eramateko helburuarekin ospatu da Valentzian Familia eta Komunitate Medikuntzari eta Unibertsitateari buruzko II. Konferentzia Nazionala

Familia eta Komunitateko Medikuntza (FetaKM) eta Lehen Mailako Arreta, lehenengoa diziplina akademiko eta eremu profesional bezala eta bigarrena osasun arretako arreta maila eta estrategia bezala, oinarrizko bi zutabe dira osasun eta hezkuntza sistemen garapen eta modernizazio prozesuetan. Hori kontutan hartuta, unibertsitate eremuan gai hauen edukiak garatzen eta finkatzen badira, Medikuntzan lizentziadunen prestakuntza aberastu, ikasleei praktika klinikoan sarri ematen diren arazoak konpontzen oinarritutako ikaskuntza espazioa eskaini eta, arreta, ikasle horietako askok etorkizunean lan egingo duten eremura zuzenduko dela pentsatzen da.

Bestalde, Europako Goi Hezkuntza Esparruak (EGHE), eta otsailaren 13ko ECI/332/2008 Ministro Aginduak diote FetaKM unibertsitate esparruan garatu behar dela, inguruko herrialdeek duten egoera berdina lortzeko eta gure ikasketa planak Europako beste unibertsitatekoen maila berean egoteko.

VALENTZIAKO DEKLARAZIOA
FAMILIA ETA KOMUNITATEKO MEDIKUNTZARI ETA UNIBERTSITATEARI
BURUZKOA

Valentzia, 2008ko Urriak 25

DEKLARAZIOA

Parte hartzaileek, Lehen Mailako Arretaren gainean unibertsitate, gizarte eta medikuntza esparruetan jarduten duten profesional adituek egindako lana kontutan hartuta eta, Europako Goi Hezkuntza Esparruaren integrazio txostenean eta ECI/332/2008 Ministro Aginduan oinarrituta, honako hausnarketa eta gomendioak jakitera eman nahi dituzte:

1) 2003ko apirilaren 5ean ospatutako Familia eta Komunitateko Medikuntzari eta Unibertsitateari buruzko I. Konferentzia Nazionalean egindako Zaragozako Deklarazioa berresten dugu.

2) Garrantzitsua da ikasketa plan berriek Familia eta Komunitateko Medikuntzaren gaitasun propioak kontutan hartzea. Hori lortzeko gomendagarria da planak modu honetan antolatzea:

a) Familia eta Komunitateko Medikuntzari buruzko derrigorrezko irakasgaia.

b) Familia eta Komunitateko Medikuntza zeharkako gai bezala beste diziplina batzuetan ere egotea.

c) Lehen Mailako Arreta, txandaka, Familia eta Komunitateko Medikuntzan praktikak egiteko

3) ECI/332/2008 Ministro Aginduko bost modulutan zehar banatuta dauden gaitasun kopuru garrantzitsu batzuk ikasteko leku aproposa da Osasun Zentroa. Praktikak gradu hasieratik egin behar dira Osasun Zentroetan.

4) Gaitasunen azken ebaluazioa egiteko orduan gomendagarria da ikaslearen koaderno bat (jardueren txostena, tutorearen txostena eta auto-hausnarketa sustatzen duten lanak) eta paziente simulatuak garrantzi handia izango duen Egituratutako Azterketa Kliniko Objektibo bat (ECO) barne hartzen dituen metodologia erabiltzea. Horretarako Medikuntza Fakultateak beharrezko bitartekoekin hornitu behar dira, irakasleak metodologia honetan treba daitezen eta berau gara dezaten. Azken ebaluazio honek espezializazio sisteman sartzeko orduan garrantzia eta eragina izan beharko luke, beraz homogeneoa izan behar da Medikuntza Fakultate guztietan.

VALENTZIAKO DEKLARAZIOA
FAMILIA ETA KOMUNITATEKO MEDIKUNTZARI ETA UNIBERTSITATEARI
BURUZKOA

Valentzia, 2008ko Urriak 25

- 5) Eremu egokia da Lehen Mailako Arreta, Gradu-ikasketen amaierako lanak (TFG) egiteko. TFGren tutoretza errazteko irakasleen gaitasuna hedatzea nahi da irakaskuntzarako akreditatuta dauden Osasun Zentroetan dauden baliabideak erabiliz eta hau akademikoki, profesionalki eta ekonomikoki aintzatetsiz.
- 6) Komunikazio klinikoaren, arrazonamendu klinikoaren eta bioetikaren ikaskuntza Medikuntza gradu ikasketetan sartu beharko da zeharka, hau semiologiarekin lotuz eta praktika klinikoan integratuz.
- 7) ECI/332/2008 Ministro Aginduak Familia Medikuntzaren gainean jasotzen dituen gutxieneko edukiak, ikasketa planetan agertu behar dira berariaz ANECAk akredita ditzan, irakaskuntzaren garapenaren bidez gaitasunak eskuratzeko bermea zainduz.
- 8) ANECAk Familia eta Komunitateko Medikuntzan, Ezagutza Esparrua ontzat eman arte, Familia eta Komunitateko Medikuntzaren edukiak familia medikuek irakatsiko dituztela bermatu behar du, hauetaz zein Departamentu arduratuko den kontutan hartu gabe
- 9) Osasun Zientzietako irakasle akreditatua izateko baldintzen artean paritarioki kontutan hartu beharko lirатеke irakasle, arretazko eta ikerketa lanak
- 10) Ikerketarako baldintzetan, ANECAk lehentasuna eman beharko die bere espezialitate eta diziplinari buruzko argitalpenei.

VALENTZIAKO DEKLARAZIOA
FAMILIA ETA KOMUNITATEKO MEDIKUNTZARI ETA UNIBERTSITATEARI
BURUZKOA

Valentzia, 2008ko Urriak 25

Beraz, Familia eta Komunitateko Medikuntzari eta Unibertsitateari buruzko II. Konferentziak, aurrean zehaztutako gomendioak lortzeko beharrezko neurriak hartzea eskatzen die medikuntza irakasteko gaitasuna duten botere publikoei. Bereziki garrantzitsua da oinarriko medikuntza prestakuntzaren helburuen egokitzapena eta espezializatzeko sarbide sistema.

Medikuntzako Gradu Hezkuntzan inplikaturik dauden eragile guztiek, modu batean edo bestean, eta Konferentzia honetako parte hartzaileek badakite lan zehatza eta sakona behar dela Familia Medikuntzaren edukiak unibertsitatean sartzeko, ECI/332/2008 Ministro Agindua ezartzen duen lege-esparruaren barruan.

Hori guztia kontutan hartuta eta gogoeta hauetan oinarrituta, txosten honetan parte hartu duten guztiek, bakoitzak bere gaitasunen esparruan, konpromiso hauek onartzeko asmoa dutela adierazten dute.

Medikuntza Fakultateetako Dekanoen Konferentzia

Osasun Zientzietako Espezialitateen Batzorde Nazionala

Osasun eta Kontsumo Ministerioa

Espainiako Familia Medikuntzaren Akademia (AMFE)

Familia eta Komunitateko Medikuntzaren Espainiako Elkarte (semFYC)